

**IV. ATALA**
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA**Ministerio de Política Territorial**

Bizkaian dagoen Gobernuaren Ordezkariordeztaren Industria eta Energia Sailaren iragarpena, Eraikitze Administrazio Baimenaren, Onura Publikoko Aitorpenaren eta Itsasoko-Lurreko Jabari Publikoaren Okupaziorako eskaera jendurrean jartzeko epearen luzapena jakinarazten duena honako hauetarako: Bizkaiko Golkoan zehar igaroko den Espainia eta Frantziaren arteko interkonexio elektrikoaren proiektuko Gatika-Frantziako muga ± 400 kV-ko korrante zuzeneko lurpeko-itsaspeko linea; Gatikako korrante alerno/zuzen estazio bihurtzailea eta 400 kV-ko zirkuitu bikoitzeko lurpeko elikadura-linea eta Gatika-Azpeitia 400 kV-ko zirkuitu bakarreko energia elektrikoa garraiatzeko aireko linearen aldaketa.

2022ko ekainaren 14an eta 27an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, hurrenez hurren, Bizkaian dagoen Gobernuaren Ordezkariordeztaren Industria eta Energia Sailaren iragarpena, jendurrean jartzen zuena Eraikitze Administrazio Baimenaren, Onura Publikoko Aitorpenaren eta Itsasoko-Lurreko Jabari Publikoaren Okupaziorako eskaera, honako hauetarako: Bizkaiko Golkoan zehar igaroko den Espainia eta Frantziaren arteko interkonexio elektrikoaren proiektuko Gatika-Frantziako muga ± 400 kV-ko korrante zuzeneko lurpeko-itsaspeko linea; Gatikako korrante alerno/zuzen estazio bihurtzailea eta 400 kV-ko zirkuitu bikoitzeko lurpeko elikadura-linea eta Gatika-Azpeitia 400 kV-ko zirkuitu bakarreko energia elektrikoa garraiatzeko aireko linearen aldaketa. Irargapenean 30 eguneko epea eman zen alegazioak aurkezteko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.1. artikuluekin bat etorriz, interesdunek egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkezteko epea 15 egun baliodunetan luzatuko da, 2022ko irailaren 1era arte.

Bilbon, 2022ko uztailaren 19an.—Bizkaian dagoen Gobernuaren Ordezkariordeztaren Industria eta Energia Sailaren burua. Lara de la Fuente Alonso.